



SENTITU

Familia

ERALDATZAILEA



Familia maiteak, familia eraldatzaile bat izatera gonbidatzen zaituztegu.

Kolaboratu

“Eraldatzen hasteko prest” kanpainarekin

Covid-19ak eragindako pandemiak gogor kolpatu ditu osasuna, ekonomia eta gizartea orokorrean. Eta bereziki pertsona zaurgarrienak kolpatu ditu.

Pandemiak Itaka-Eskolapioen proiektu sozialei ere eragin die. Adibide batzuk jartzearen, barnetegietako eta zentro soziokulturaletako jarduera gelditu behar izan dugu, ikastetxeak itxi ditugu, diru-sarrerak jaitsi dira eta proiektu sozial berriak atzeratu behar izan ditugu.

Familian egiteko jarduera hezigarri bat proposatzen dizuegu.

- » Ikusi “Eraldatzen hasteko prest” kanpainaren aurkezpen-bideoa. (esteka erantsi)
- » Ikusi Pedro Aguado Aita Nagusiaren bideoa, egungo egoeraren berri ematen diguna. (esteka erantsi)

- » Ikusi Boliviako Jhumalay Vallejo neska-
ren testigantza-bideoa. (esteka erantsi)

Esteka honetan (esteka erantsi) haurren testigantza gehiago dituzue, eta beste esteka honetan (esteka erantsi) “Eraldatzen hasteko prest” kanpainari buruzko informazio guztia aurkituko duzue.

Bideoak ikusi ondoren, galdera hauei buruz familian gogoeta egitera gonbidatzen zaituztegu.

Laguntzera animatzen zaituztegu:

- » Itaka-Eskolapioetan boluntario gisa lan eginez.
- » Emango dizkizueten kontu-zenbakietan familia gisa ekarpen ekonomikoak eginez.
- » Zuen seme-alaben bitartez ekarpen ekonomikoak eginez.

Denon laguntza behar dugu gizarteak dituen premiei erantzuten jarraitzeko.



sentitu / familia eraldatzailea

<p>Zer egin dezaket, dezakegu, egoera arintzeko?</p>	
<p>Nola eragin digu familia gisa?</p>	
<p>Nola eragin die pandemiak eskolapioen beste presentziei?</p>	